



6. Oñatiko merkataria **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

Oñati alkarregaz ezaguketako

6. Oñatiko merkatariak

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Oñatiko merkatarien historia hurbila ezagutuko dute, baita Txanda elkartearen eta bertako kideak ere. Modu honetan, komertzio txikiekin elkarlanean, promozio kanpaina bat egingo dute taldeka.
 - Espezifikoak
 - Oñatiko merkatarien historia ezagutzea.
 - Oñatiko komertzioan emakumeek izan zuten garrantzia ezagutzea.
 - Txanda elkartearen berri izatea eta bertako kideekin harremanak izatea.
 - Oinarrizko komunikazio kanpaina bat egiten jakitea.
 - Hizkuntza zuzentasuna lantzea.
 - Taldean lan egitea.
 - Hausnarketarako eta hipotesiak planteatzeko gaitasuna lantzea.
 - Mezu bat komunikatzeko modu sortzaileak lantzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Azken xedea izango da taldeka Oñatiko komertzio batekin elkarlanean promoziorako kanpaina bat egitea.
- Ikaste taldea
 - Hirugarren ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

HASIERA FASEA

- **1. jarduera → Oñatiko dendak**

- Helburua: Oñatiko denden inguruko aurrezagutzak aktibatzea eta erosketa-ohituen inguruko tertulia sortzea.

-Sekuentzia honetan Oñatiko merkataritza ezagutu behar dugunez, gaia gelara eramateko hurrengo proposatzen da: Geu zer bait berriarekin sartuko gara (izan daiteke kamiseta bat, zapatilak...) eta esango dugu ea konturatu diren eta Oñatiko denda batean erosi dugula. Horri kantxa eman ostean, ikasleak eserita dauden moduan, duten erosketa ohituen inguruan hitz egingo dugu eta ezagutzen dituzten .

-Horretarako galdera diferenteak egingo dizkiegu: *Zuek erosten duzue Oñatin? Zer dendatan? Oñatiko zenbat denda ezagutzen dituzue? Gurasoekin joaten zarete Oñatiko dendetara erostera? Txanda ezagutzen duzue? Eta Txandako Txantxikua?*

-Eta tertuliarekin amaitzeko, galdera hau formulatuko diegu: *Zergatik da garrantzitsua Oñatin dendak egotea?* Galdera honen erantzunak zentzua emango dio sekuentzia osoari eta honen inguruan pentsatzea beharrezkoa da. Behin eta berriz entzuten dugulako zer egin behar den, baina zergatia ez da berariaz lantzen.

-Behin azken galdera horri erantzun batzuk emanda, HURRETIK egitasmoaren barruan oñatiarrei egindako elkarrizketa batzuk grabatu ziren eta denekin HURRETIK GALA osatu zen. Hori sarean ikusgai dago eta bertako pasarte bat Oñatiko merkatarien ingurukoa da. Eta bertan, gaian sakontzen hasteko beharrezkoa den informazioa entzungo da. Nahiko motza da eta hirugarren zikloan osotasunean ulertuko ez badute ere, ulertu behar duten informazioa barneratuko dute. Beraz, bideo hau proiektatuko dugu gelan denok ikusteko: [HURRETIK GALA](#) 1:29:40. min - 1:32:30.min

-Bideoa ikusi ostean berau komentatuko dugu guztion artean eta garrantzia emango diogu bertan planteatu diren bi ideiarri: Oñatiko komertzioek duten garrantzia kaleak bizirik mantentzeko orduan, eta emakumeen garrantzia sektore honetan. Aurrerago landuko da hau, baina hasiera batetik azpimarratzea komeni da.

- **2. jarduera → Bideoaren inguruan etxekeekin hausnartzen**

- Helburua: Bideoak planteatzen duen gaiaren inguruan etxekoei elkarrizketa bat egitea eta ondorioak partekatzea.

-Bideoa komentatu ostean, esango diegu, gainera komentatu badute ere, etxekeek gaiaren inguruan zer dakiten jasotzea garrantzitsua dela jende gehiagoren iritzia jakiteko eta ohiturak ezagutzeko. **Beraz, horretarako prestaturiko *inkesta egiteko orria* banatuko diegu eta etxean betetzeko esango diegu.**

-Inkesta orri hauek betetakoan, gelan komentatuko dugu errondan, jaso duten gauzarik deigarriena. Eta ondorioak aterako ditugu denok batera. Komeni da aipatzen diren dendetako batzuk TXANDA elkartearen barruan kokatuta egotea. Horrela errazagoa izango da 3. jarduerako lana aurreko honekin lotzea.

- **3. jarduera → Zer egin dezakegu guk?**

- Helburua: Azken xedea zehaztea Txanda elkartearen inguruko oinarrizko informazioa jaso ostean.

-Segur aski, aurreko jardueran aipatutako denda gehienak Txanda elkarteko kideak izango dira. Beraz, aprobeztatuko dugu Txandaren inguruko oinarrizko informazioa emateko. **Txanda elkartearen oinarrizko informazioa hurrengo atalean aurkituko duzue puntuka, jakingarrien atalean, hain zuzen.**

-Beraz, euskarri bezala, elkartearen webgunea erabiliko dugu: txanda.eus . Bertan, Txanda zer den, zer helburu dituen, zenbat bazkide diren... ikusi ahal izango dugu. Denok batera irakurtzeko moduan daukate jarrita.

-Webgunean bazkideak zein diren ikusi ostean, **aipatuko diegu askotan jendeak kanpoan erosten duenez, denda batuzuk itxi egin behar izaten direla eta hori arazo bat dela herriko merkatarientzat eta herriarentzat berarentzat.** Beraz guk hor zer egin dezakegun galdetuko diegu.

-Ondorioetako bat izango da, **eurek jendea bultzatu egin ahal dutela bertako dendetan erostera. Eta hori promozio kanpaina baten bidez egin daitekeela gehituko dugu guk. Proiektu berri bat sortu dugu, beraz!** Denon artean honako hau zehaztuko dugu azken xede bezala: Txandako bazkide batekin elkarlanean, denda horren promozio kanpaina bat egitea taldeka.

-Prest gaude lanean hasteko!

GARAPEN FASEA

- **4. jarduera** → **Oñatiko merkataritza (eta emakumeen garrantzia) ezagutzen.**
 - Helburua: Lantaldeak sortzea eta talde horietan Oñatiko merkataritzaren inguruko txostentxoak lantzea eta informazio inportanteena azpimarratzea.

-Azken helburua finkatuta, lanean hasteko **taldeak egin** beharko ditugu. Irakaslearen interesaren arabera taldeak izan daitezke, segun eta zeharkako zer landu nahi den. 3 edo 4 pertsonako taldeak egitea gomendatzen da, nahiz eta gehiagorekin ere funtzionatuko duen.

-Haurrei esango diegu gaur egungo merkataria laguntzeko, jakin behar dugula aurretik nola bizi zuten oñatiarrek erosketen kontua eta nola eta zergatik aldatu den. Horretarako sortutako testuak landuko ditugu. Txosten orokorrean 5 atal nagusi daude. Helburua litzateke guztien artean txostentxo guztia irakurtzea, beranduago informazioa partekatzeko eta ezagutza zabaltzeko. Orduan, irakasleak talde bakoitzari testu zati bat emango dio eta hori landu beharko du. Eta bi eginbehar izango dituzte: Testua ondo ulertzea eta bestalde, informazio deigarria azpimarratzea. Hori izango baita gerora, besteekin partekatuko duten informazioa.

-Bestalde, txosteneko informazioaren inguruko galderak izan ditzakete haurrek, gaur egungo panoramarekin alderatuz, aldaketa dezente egon direlako. Aldaketa horren berri txostenean ematen da baina oso modu orokorrean. **Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, jakingarrien atalean aipatzen da informazio iturria eta dena kontestualizatzeko aukera ona da bertako informazioaren berri izatea irakasle moduan,** izan dezaketen galderen erantzunak eman ahal izateko.

-Honez gain, txostenetan ere berez nabarmentzen da emakumearen garrantzia sektore honetan. Hori azpimarratzea ondo legoke haurrek lehengo jendartearen inguruko irudi gehiago egin ditzaten euren buruan.

- **5. Jarduera** → **Historia partekatuz**
 - Helburua: Landu duten testuetako informazio esanguratsua talde handian konpartitzea.

-Lehengo jardueran esan diegun moduan, **testuaren ideia orokorra barneratzeaz gain, irakurri duten informazio deigarriak identifikatuta edukita talde handian partekatzeko garaia heldu da.** Talde bakoitzak esango du testuan zer ulertu duen eta zer egin zaion deigarria. Modu honetara, guztiek edukiko dute pasa den mendeko Oñatiko merkataritzaren inguruko zertzelada batzuk.

-Eta denon artean Oñatiko merkatarien gaur egungo egoeraren inguruan hitz egingo dugu. Arestian aipatu bezala, taldeak prestutasuna izango du merkataria laguntzeko. Baina denak batera laguntzeak dezentete zaildu dezakeenez kontua, merkatarien artean aukeraketa egitera behartuta ikusiko dugu gure burua. **Gainera, merkatariekin zuzeneko harremana izateari ere garrantzia emango diogu**, beraz, ezinbestean negozio bat aukeratu beharko du talde bakoitzak. Hurrengo jarduerako lana izango da hau.

- **6. Jarduera → Negozioaren aukeraketa.**

- Helburua: Taldeka, promozio kanpaina norekin batera egingo duten erabakitzea Txandako webgunea arakatzuz.

-Aipatu bezala, **negozio bat aukeratu beharko du talde bakoitzak**. Horretarako Txandaren webgunera joko dute eta bazkideen atalean kuxkuxeatu beharko dute, ea zer motatako negozioak dauden, norenak diren, non dauden... Eta taldekideen artean erabaki bat hartuko dute eta erabakia hartzeko arrazoian ere erreparatuko dute.

-Hau egin ostean, talde handian elkarri informazioa emango diote. Talde bakoitzak, beraz, bere erabakiaren berri emango du eta erabaki horren zergatia ere azalduko du. Denda edo zerbitzuren bat errepikatzen baldin bada, talde batek bestearekin negozioatu egin beharko du.

**Jakingarrien atalean azalduta dagoen arren, egokitzat hartu da hemen ere azaltzea Txanda elkarteaz aparte badagoela negozio andana Oñatin. Baina herriko merkataritzan ekimen bateratu bat bultzatu eta esfortzu berezitua egin dutenez, sekuentziak hauengan jarri du arreta, eta lanketa hau eurengan zentratzea hobesten da.*

EKOIZPEN FASEA

- **7. jarduera** → **Aurrez-aurre**

- Helburua: Aukeratutako negozioaren jabe edo langileekin zuzeneko harremana egitea eta elkarrizketa bat egitea, proposamena luzatuz.

-Jarduera honetan aukeratutako merkatariekin harreman zuzena egin beharko dute, bisita bat eginez, eskolara gonbidatuz... Aukera diferenteak egon daitezke. Gomendagarriena, zalantzarik gabe, dendara joatea litzateke eta eskola ordutan ezinezkoa bada, eskolaz kanpo ere egin dezakete bisita hurrek.

-Baina honen aurretik, komeni da **edukiko duten elkarrizketa hori aurrez irudikatu eta pixka bat prestatzea**. Horretarako orri mutu bbat erabili ahal izango dute. Bertan idatzi ahalko dute: Ea zer saltzen duten, nolatan animatu zen/ziren denda irekitzera, zer zailtasun duten, zer erreztasun, zer eskaintzen dioten jendeari, merkatalgune handiek eta denda digitalek zer kalte egin dieten, eta abar.

-Hau egin ostean, **merkatariarekin zita adostuko dute** eta egun eta ordu horretan bertara joango dira elkarrizketa egitera. Zita adosteko dei horretan, zer proiektu egin nahi duten azalduko diote lehenbizi.

-Bisitaren egunean elkarrizketa egingo diote eta elkarrizketako erantzunak jaso egingo dituzte. Erantzun horiekin negozioa ezagutuko dute eta promozio kanpaina egiteko beharrezko informazioa izango dute.

- **8. jarduera** → **Kanpaina diseinatzen.**

- Helburua: Taldekanpaina diseinatzea, merkatariak emandako informazioa oinarritzat hartuta.

-Bada, jarduera honetan, **behin merkataria eta negozioa ezagututa beronen denda edo zerbitzuaren inguruko informazioa zabaltzeko lanari ekingo dio talde bakoitzak**. Hau publizitate ekintza baten bitartez egin behar da. Baina zer esan nahi da "publizitate ekintza"rekin?

-Negozio horren esentzia eta garrantzia gordetzen duen hedapen ekintza bat da egin behar dutena: Kartelak, irratirako grabazioak, ikastetxeko aldizkarian iragarki bat, performance bat jolastorduan edota herriko plazan, abesti bat, dantza bat... komunikatzeko balio duen edozer.

-Hau jakinda, **talde bakoitzak erabaki beharko du zer mezu zabaldu eta nola**. Irakaslearen lana izango da erabakiak hartzen laguntzea eta abar. Gainera, komeni da ideiak finkatzen joan ahala, harremana egidako merkatariarekin erabakitakoaren berri

ematea. Modu honetan, bere iritziak ere kontuan hartuko dira eta lankidetzaz sentsazioa areagotu egingo da.

- **9. Jarduera → Kanpaina eta honen aurkezpena.**

- Helburua: Kanpaina bera burutu eta honen aurkezpena egitea.

-Jarduera honetan, aurrekoan diseinatutakoa eta prestatutakoa burutuko dute. Kartelen kasuan eskolan edo behar den lekuan itsatsi, eskolako megafoniatik mezuak bota, abestien kasuan eskolako gurasoei zabaldu... milaka modutara egin daiteke kanpaina.

-Helburua jendearengana heltzea denez, behaketaren bitartez, ikusiko dute ea zer eragin izan duen. Ea jendeak zerbait komentatu duen, zenbat jendek ikusi duen eta abar.

-Hau egin ostean **talde osoan aurkezpena egingo dute eta posible bada, lankide izan diren merkataria ere gonbidatuko dituzte aurkezpenera.** Beti ez da posible izango, baina balio erantsia du horrek.

-Bertan azaldu beharko dute: Aukeratu duten negozio horretan zer egiten duten eta zer nahi izan duten publizitatea eta nola. Eta beste ikaskideek galderak egingo dizkiete, eta merkataria bertan badago, zuzenean berak erantzun ahal izango ditu batzuk.

- **10. Jarduera → Bidearen ebaluaketa**

- Helburua: Bidearen ebaluaketa egitea eta azken ondorioa ateratzea.

-Behin aurkezpen guztiak eginda eta **bidean sentitutako zailtasun eta zirrarak bizkarean hartuta, asanblada moduan jarrita prest egongo gara ebaluazioa egiteko.**

-Lehenengo eta behin, **egindako bideari errepassoa emango diogu:** herriko merkataritzan hutsune bat identifikatu genuen eta geuretik egiten zuten lana goraiatu egin genezakeela otu zitzaigun publizitate kanpaina baten bidez. Baina hori egin aurretik, gaur egungo merkataritza zeren ondorio den ulertzeko joan den mendeko merkataritzaren inguruko informazioa jaso genuen. Ostean Txandako kide bat aukeratu eta bere negozioari bultzada eman genion kanpaina baten bitartez.

- **Eta hau zehaztu ostean, paper batean, prozesu guztian zehar bizi izan duten momenturik onena eta txarrean idatziko dute.** Eta honekin batera, hausnartuko dute onena zergatik izan den ona. Eta txarraren kasuan berriz biziko balute hori zer egongo litzatekeen euren eskutan momentu hori goxoagoa izateko. Izan ere, norberaren erabakiak eragina dauka nola bizitzan, hala herriko merkataritzan.

-Hau denon artean komentatu ostean, paper guztiak karpeta batean gordeko dituzte oroitzen guztiak eta azken ondorio batekin amaituko dugu: **Gogoratu; herriko**

komertzioek kaleak bizirik mantentzen dituzte eta gertuko zerbitzu bat ematen digute, besteak beste; hartzen dugun erabaki bakoitzak eragina du haiengan... eta geuregan.

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

TXOSTENAK

Haurrentzat egin diren txostentxoak “Oñatiko emakumiak errekadutan. XX. mendeko etnografia feminista bat” liburutik ateratakoak dira. Lan honetarako 57. orritik 93. orrira bitarteko testuak erabili dira. Informazio gehigarri eta zehatz asko dago bertan eta zalantzarik edo gehiago jakin nahi izanez gero erreminta oso egokia da. Behekaldean duzue horren esteka:

***Oñatiko emakumiak errekadutan* liburua:**

https://drive.google.com/drive/u/4/folders/1CXtb5hM0C7FIO-56K16_anDK_RrHC-OQ

TXANDA

Txandaz aparte badago Oñatin negozio andana. Baina herriko merkataritza ekimen bateratu bat bultzatu eta esfortzu berezitua egin dutenez, sekuentziak hauengan jarri du arreta. Sekuentzian Txandaren inguruan hitz egiteko tarte egongo denez hemen webgunea eta bertan eurek jarritako informazio orokorra elkarte hau zertan aritzen den argitzeko:

<http://www.txanda.eus/eu/>

- **Zer da TXANDA?**
 - Txanda, Oñatiko Merkataritza eta Zerbitzu elkarte, 1997. urtean sortu zen eta gaur egun, herritarrei zerbitzu eta produktu sorta zabala eskaintzeko 57 bazkidek dihardute lanean.
- **Zer helburu dauzka TXANDAK?**
 - Herriko merkataritza egitura promozionatzea, hau bultzatzeko eta bezeroak fidelizatzen kanpaina eta ekintzak burutuz.
 - Sektorea profesionalizatzea prestakuntza-akzio jarraiekin, araudi, diru-laguntza eta merkatarientzako interesgarri den edozein gaitaz informatuz. Horrela elkartekideek beraien jardueran etengabeko hobekuntza garatu dezakete eta bezeroak asetu.
 - Asoziazionismoa sustatzea elementu bateratzaile bezala, bezeroak identifikatuko duen imajina komun bat sortuz.
 - Azkenik, Txandak elkartekideen interesak ordezkatzeko merkatari eta zerbitzu sektoreen gain esku hartzen duten instituzio eta erakunde desberdinen aurrean.
- **Bazkideak eta hauen kontaktuak:**

- <http://www.txanda.eus/eu/kideak>
 - Bazkideak zein diren eta hauen kontaktuak hemen aurki ahal izango dituzue. Modu ordenatu eta erosoan dago sailkatuta.